



Comisión Gipuzkoa-ko Saila

*Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País
Euskalerriaren Adiskideen Elkarte*



GURS GOGOAN (EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEAREN BISITA GURSERA)

Espainiako 36ko gerran borrokatu ondoren, Frantziako Estatuko muga zeharkatu zuten euskal gudariak errefuxiatu-eremuetan bizi behar izan zuten. Eremu haietako bat Gurs zen; izen bereko herrian zegoen, Pirinio Atlantikoen departamentuan. 60.000 pertsona baino gehiago egon ziren han; tartean, zenbait mila euskal soldadu, baita soldadu errepublikanoak eta Nazioarteko Brigadetakoak ere.

Hasieran “harrera-zentro bat” izan behar zuena “konfinamendu-esparru” bihurtu zen (eta 1940tik aurrera, kontzentrazio-esparrua izan zen), non errefuxiatuak presoekin parekatzen ziren.

Gursek lau aldi izan zituen. Lehenengo, 1940. urtera arte, Espainiako 36ko gerran borrokatu ziren erbesteratuentzako errefuxiatu-eremua izan zen. 1940ko maiatzean, Hirugarren Reicharen armadak Frantziako Estatua hartua zuelarik, gobernadore militarrek “herrialde etsaieratik” zetozen guztiak Gursen sartzea erabaki zuen. Hala, beren herrialdetik naziengandik ihesi irtendako hainbat pertsona han eduki zituzten atxiloturik; adibidez, Hannah Arendt filosofo judua.

1940ko uztailean, Frantziak armistizioa sinatu zuen; borrokak bertan behera geratu ziren eta Vichyko gobernu kolaborazionista ezarri zen. Hurrengo hiru urteetan, 20.000 judu atzerritarren infernua izan zen Gurseko esparrua.

1942an, Hirugarren Reichak Azken Itenbidea deritzona martxan jartzea erabaki zuen. Hori dela eta, 1942ko abuztutik 1943ko martxora bitarte, Gursetik deuseztatze-esparruetara bidali zituzten han zeuden milaka eta milaka judu.

1945ean behin betiko itxi zuten esparrua. Presoen barrakoiak erre egin zituzten, eta Gurseko esparrua ahazturik geratu zen. Han bizi izan zirenek eta sufritu zutenek bakarrik zuten gogoan kontzentrazio-esparru bat egon zela.

Baina egon zen ez ahaztea nahi izan zuenik. Lehenik juduen komunitateak, 1960ko urteetan; gero, 1980an, Gurseko Esparruaren Lagunen Elkarteak, eta, azkenik, Eusko Jaurlaritzak utzi du bere marka esparru horretan, askatasunaren alde egitegatik preso egondakoen omenez. Eta gaur Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak ere bildu nahi du oroitzapen horretara, Gurs ez dadin iragan lazgarri baten oihartzuna bakarrik izan, baizik eta askatasunaren ikur ere bai.